

Mugarriak ipini; mugatu



ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU
EUSKALTZALEA

Harluxet hiztegi entziklopedikoak izenburuko hitzekin azaltzen du *zedarritu* aditzaren esanahia. Izen horren pean biltzen diren sona handiko kapitalista lukurreroek aldarrikapen bat ezagutarazi dute: *Autonomia Erkidegoaren premiazko erronka da hezkuntza sistema malgua diseinatzea, hainbat lurraldetatik datozen edo mugitu beharra duten familiek irtenbide errazak izan ditzaten beren seme-alaben hezkuntza ibilbideetarako*. Zehaztasun gehiago gabe, galdera ugari sortu dira: zein lurraldetatik datoz? Zer esan nahi du mugitu beharrak, aldi batean besterik ez direla egongo? Irtenbideak erraza behar badu, badaude zailagoak direnak? Eta zein da, bada irtenbide “erraz” hori? Baina, zein da, bada, arazoa?

Urkulluri deserosoegia egingo zitziolakoan, pentsatu bai, baina esaten ez duen ideia hori argiegi adieraztea, nahita utzi dute aldarri mugatua, motza, airean. Beste bat arduratu da hori zehazteaz, euskaraz zer edo zer argitaratzeagatik dirulaguntza handia (handiena) jasotzen duen egunkari bateko maiseatzaile bat, eta euskarazko hezkuntza seinالاتu du arazo iturri gisa; baina ez gaitzala piano jotzailearen lainezak itsutu: doinua neoliberalen sui-

te bat da, euskaldunoi datorkigunaren preludea eta guzti.

Euskaldunak enbarazu gara kapitalarentzat, mozkinik gabeko kostua baitira gure eskubideak bermatzea eta gure kultura duintzen laguntzea. Merkatuak kulturaren uniformizazioa bultzatzen du, errazago saltzeko, gainbalioa eta aberastasunak biderkatzeko. Horrela, bizpahiru hizkuntza nagusirekin aski eta sobera dute; beraiena tartean sartuta, jakina. Bestalde, liberalismoak berez merkatuen desarautzea bultzatzen badu ere, jakina da mesedegarri zaizkion arauak ezartzen dituela. Horregatik, euskarazko hezkuntza oinarritik pitzatzera joko dute, eta bultzatuko dute hezkuntza eredu uniformizatzailearen bat; ez dute alferrik atera gaia Hezkuntza Legearen eztabaidarekin batera. Eta bide batez, hizkuntza nagusien nagusikeria naturalizatzen jarraitu dute.

Horiek ari dira; eta gu, euskaldunok? Lagako al diegu eraisten eraikitze hain ahalegin handia behar izan duena? Argitu eta lau haizetara ezagutaraz ditzagun zein mugarri igaro behar dituen euskarak garapen hazkor esanguratsua izateko. Zedarritu dezagun euskararen aurrerabidean jarraitzen lagunduko digun bidea, atzera urratsik onartu gabe, ustez, abaila hartzeko balira ere. ●

Idazten laguntzen diguten gauzez



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Lorategi bat zaintzeak idazten laguntzen du. / Leihotik begiratzeak idazten laguntzen du. / Lehenago egon ez den leku batera bidaiatzeak idazten laguntzen du. / Udako egun batean bideari jarraiki gidatzeak idazten laguntzen du. / Batzuetan, Miguel Bosé entzuteak idazten laguntzen du. / Asteko egun batean arratsaldeko lauretan dutxatzeak idazten laguntzen du. / Astegun batean arratsaldeko ordu bietan zinemara joateak idazten laguntzen du. / Zereginik ez izateak ez du idazten laguntzen. / Zorigaiztoko samar sentitzeak, batzuetan, idazten laguntzen

du”. Leila Guerrieroren testua gustatzen zait, idazten laguntzen diguten gauzei buruzkoa. Nik elurra gehituko nuke; elur malutak aurrez aurre datozkizunean parabisarantz. Erdi lo nagoenean jendeak edukitzen dituen elkarrizketak hegazkinetan. Larunbat goizetako kafea tren geltokitik gertu dagoen tabernan. Laura Ferroren Instagrama; baina, ororen gainera, idazten dudana lerro bakoitzak hobe egiten nauela sinistea. Guk mundua aldatu ez, baina geure burua mudatzen ari dela prentsatzek. Izan ere, idaztea sineste ariketa bat da. ●